


Laranjazko sorbetea

Aitonaren urtebetetzea, zure kirol-taldearen garaipen gogoangarria... Sarritan izaten dugu zer ospatu eta ospakizun horietan beti da janaria tarteko. Gurasoak arduratu ohi dira horretaz, baina bada garaia zeu ere horrelakoetan laguntzen hasteko! Hemen duzu postre gozoa egiteko errezeta erraza, aitona-amonak, gurasoak... denak aho bete hortzekin uzteko modukoa!



Prestatzeko era:

- 1 Lehenik, moztu lau laranjaren goiko zatitxoak, txapel txiki moduko ataltxoak eginez. Ondoren, atera barruko mamia ganibet txiki batez. Sartu izozkailuan azal hutsak eta txapel gisako atalak.
- 2 Ondoren, erdibitu beste laranja eta limoia. Gero, atera haien zukua zukugailuaz.
- 3 Jarraian, jarri irabiagailuan zukua, laranjen mamia eta azukrea; irabiatu ondo, krema fin bat osatu arte. Bota krema ontzi batean eta sartu izozkailuan ordubetez.
- 4 Denbora hori pasatu eta gero, atera ontzia izozkailutik eta irabiatu krema berriro, zurezko koilara batez baliatuz.
- 5 Azkenik, bete laranjen azal hutsak kremarekin eta ipini txapeltxoak estalki gisa.

Prest duzu laranjazko sorbetea. On egin!



Izena _____

Data _____

Aukeratu erantzun zuzena.

- 1** Zer fruta behar da sorbetea prestatzeko?
 - A. Laranja baino ez.
 - B. Laranja eta limoia.
 - C. Laranja, limoiak eta marrubiak.
 - D. Laranja eta marrubiak.

- 2** Zenbat pertsonarentzat da errezeta?
 - A. Hiru lagunentzat.
 - B. Lau lagunentzat.
 - C. Bost lagunentzat.
 - D. Sei lagunentzat.

- 3** Zer da frutaren mamia?
 - A. Zati biguna.
 - B. Hezurak.
 - C. Azala.
 - D. Frutak ez dauka mamiarik.

- 4** Zer egin behar da limoiarekin?
 - A. Ganibet txiki batez barrukoa hustu.
 - B. Erdibitu eta atera bere zukua zukugailuaz.
 - C. Izoztu.
 - D. Ataltxoak egin eta apaintzeko erabili.

- 5** Zenbat denbora egon behar du kremak izozkailuan?
 - A. Ordu laurden baino ez.
 - B. Ordu erdi, gutxienez.
 - C. Ordubete.
 - D. Ordu eta erdi, asko jota.

6

Zer egin behar da lehen-lehenik?

- A. Crema zurezko koilara batez irabiatu.
- B. Laranja baten eta limoi baten zukua atera.
- C. Laranjen azal hutsak kremaz bete.
- D. Laranjei barruko mamia atera.

7

Zer testu mota da irakurri duzuna?

- A. Sukaldean aritzeko arauak dira.
- B. Errezeta bat egiteko argibideak dira.
- C. Ibilbide bat egiteko orientabideak dira.
- D. Fruta jatea onuragarria dela adierazteko iragarkia.

8

Zer zati izan ohi ditu testu mota horrek?

- A. Errezeta prestatzeko jarraibideak baino ez dira agertzen.
- B. Errezetarako jarraibideak eta irudiak.
- C. Jarraibideak, irudiak, osagaien zerrenda eta sarreratxo bat.
- D. Sarreratxo bat, jarraibideak eta irudiak.

9

Nola dago azalduta ibilbidea?

- A. Bukaeratik hasieraraino.
- B. Pauso guztiak, baina era nahasian.
- C. Hasieratik bukaeraraino.
- D. Errezetaren erditik aurrera.

10

Zer hitz erabiltzen ditu egileak testua antolatzeko?

- A. Hemen, hor eta han.
- B. Lehenik, gero, jarraian eta azkenik.
- C. Atzo, gaur, bihar eta etzi.
- D. Ni, zu, gu eta haiek.